

JARDUNALDIA: MAKINEN SEGURTASUN-BETEKIZUNAK.

OSALANek finantzaturako eta EAEko patronalek eta CONFEBASKek abian jarritako X. **SEGURMANIA** kanpainaren barruan, tailer batzuk egiten ari dira 2026an, euskal ETEen jokabide seguruak zabaltzeko, sustatzeko eta sentsibilizatzeko.

Horregatik, **apirilaren 21ean (asteartea), IMQ Prevención** elkartearekin batera, urteko lehen jardunaldia egingo dugu. Bertan, **makinen segurtasun-betekizunei** buruzko gaiak erakutsiko dira modu teorikoan eta praktikoan.

Makinen segurtasuna eta haren egokitzapena, tradizionalki, erabiltzaileak, fabrikatzaileak eta inportatzaileak kezkatu dituen gaia da. **Ekipoak diseinatzen direnetik martxan jartzen diren arte, mantentze-lanak, aldaketak edo erabilitako ekipo gisa saltzea**, makinaren bizitzako fase guztietan alde batera utzi behar ez diren legezko betebeharrak batzuk dira.

Makinetako segurtasuna industria-eremura bideratu izan da tradizionalki, baina badira lan-ekipamenduak erabiltzen dituzten sektore gehiago ere, eta arazo bera dute. Enpresak **funtsezko puntu batzuk hartu behar ditu kontuan** makinaren segurtasuna fabrikatzailearen edo eroslearen ikuspegitik zaintzeko.

Arlo horretako **lege- eta arau-eskakizun ugari daudenez**, asmoa ez da makinaren diseinura bideratzea (fabrikatzaileengana gehiago bideratuta dago, baina alderdi hori aipatuko da); **aitzitik, lan-ekipamendu horiek arriskuen prebentzioa azken erabiltzailearen ikuspegitik nola ardaztu behar duten azalduko da.**

Makineria enpresaren beste elementu aktibo bat bezala integratzeak bere estrategiaren jomugan egon behar du beti.

HIZLARIA:

- Ruben Arteaga- IMQ PREVENCIÓNeko aholkulari teknikoa

Norentzat: prebentzio-arduradunentzat, kudeatzaileentzat, arloko arduradunentzat, enpresetako mantentze-lanen arduradunentzat.

Data	aurrez aurre	Iraupena	ordutegia
2026/04/21	SEA – Araba Kalea, 37 01006 Gasteiz	1,5 ordu	9.30 tik 11.00 arte

Zure interesekoa izango delakoan, adeitasunez:

Sin.: Aitor Otaola Díaz de Alda
Zuzendari-ondokoa

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 7a